

**EUSKAL APAIZ DIOZESIARREN
XX. MENDEKO HISTORIAK**

Eskuratu berri dudan liburu baten inguruan¹, aukera eta aitzakia onak ditut, orrialde hauetara euskal historia erlijiosoan sobera landu ez den alor bati heltzeko, XX. mendeko apaiz sekular edo diozesiarren historiari begiratu bat emateko. Argitalpenaren barrutik hasita, iradokizunez betetako historia batekin topo egiten da orrialde horietan.

Gure apaiz diozesiarren XX. mendea bereziki garrantzizkoa izan da Elizarentzat (bertako eta unibertsalarentzat), eta euskal gizarteak berea izan du apaiz horien egunerokotasun hurbil eta eragilea. Horren historia idazteko dago, eta eskuartean dudan hiztegi honek hainbat gogorakizun eskaintzan digu.

Hau guztia eta gehiago egon delako, jakingarria gertatzen da Cárcel Ortí historialari ezagunak Euskal Herriko apaiz diozesiarrei eman dien tartearen zenbatekoa eta nolakoa izan den jakitea².

Hiztegiaren informazio-eremua

XX. mendeko biografia laburrak bildu ditu argitalpen horrek. Liburua Elizaren beraren barrutik eta Espainiatik egina dago, horrek ekar ditzakeen aberastasun eta muga guztiekin.

¹ Cárcel Ortí, V., 2006, *Diccionario de sacerdotes diocesanos españoles del siglo XX*. Madrid: Editorial Católica (bac maior 81). 1.293 or.

² Are jakingarriagoa autoreak bere familiarrean ezagutu eta bizitako aita-aren jarrera eliztarra eta geroko zeregin funtzionario-poliziala bipilki aitortzen dizkigunean (9. or.).

Ez da liburu estatistikoa, apaiz diozesitar guztien fitxa biografiakoak jaso dituen; ez da *nomenclator* orokor bat.

Alderantziz, 3.003 biografia hautatu dakartza, modu laburrean emanda; baina Estatuko diozesi guztiak hartzen ditu aintzakotzat. Euskal Hegoaldeko apaiz gogoangarrienak ere hor daude, baita hemen jaioak izanik erbestean bizi eta lan egindako batzuk ere. Erbeste hori Misioetakoa izan daiteke, gerraondoko erbeste politikoa nahiz hautapen pertsonala.

Gotzainen episkopologioak ez du lekurik hiztegi honetan, eta, hortaz, XX. mendean gotzain euskal herritarrak ugari izan diren arren, Gandasegi, Artze Otxotorena, Bereziartua, Egin, Beitia edo J. Argaia gotzainak ez ditugu aurkituko orrialde hauetan; baina bai Baltasar Argaia jalonjea edo Klaudio Gallastegi San Antongo parrokoa. Eliz botere-piramideko erpina eta zoru apala falta dira hemen.

Hautapena egiteko bakoitzaren balioak eta garrantzia neurtzeak katramaila askaezinak dituela esango nuke, eta auzartzia puska batekin aurrera egin behar izan duela autoreak, e. b., bakoitzaren bizitzako arrakasta, oihartzun soziala eta utzitako eliz edo kultur ondarea aintzakotzat hartuta, ezkutua-gokoak diren otoitza edo fideltasun-balioak neurtzen zailak gertatzen direlako. Bistan da, bakoitzarekiko hori dena balioztatzea ez da berez samurra, eta are zailagoa Espainiatik Euskal Herrikoaz hitz egin behar denean, gogoan izanik hemengo eliztarrek Estatuko gainerakoekin izan dituzten XX. mendeko aldeak (Gerra Zibila eta frankismoaren hamarkadetakoko politika eta jarrerak, adibidez).

Mundu idatzira heldu ohi diren historia pertsonalak gutxi izaten dira, eta betiere arrakasta sozialen bati lotutakoak. Erljio-mundu eta bizieratan nahitaezkoak diren norbanakoen barne-esperientziak edo pastoralean isilpean doan lanak ez direla gehienak iristen iturri idatzietara.

Bestalde, hiztegiak bildu nahi izan duen eremu hain zabalak (diozesi guztiak, XX. mende osoa) egon daitekeen bibliografia ezagutzea eskatu du. Autoreak, arazoaz ongi jabetuta, ez du ahalegin kaskarra egin alor horretan, baina sumatzen da konponbide zaila zuela osabide bibliografikoaren horrek.

Apaiz euskal herritarrak

Gasteiz-Bilbo-Donostia diozesietako XX. mendeko 114 lagun biografiatzen ditu hiztegiak, eta muga ezberdinak izan dituen Iruñekotik beste 132. Horiek dira autoreak geroko oroitzapenerako jaso dizkigunak.

Geografia sakabanatuan

Hiztegi honetan ikusten dugunez, Estatuako 28ren bat Diozesitan lan egin zuten euskal herritarrek, hainbatek borondatez ez ezik goi-karguetan arduradun gisa, edo baita gerrateondoko erabakiek hemendik urrunduta ere. Erbesteko batzuek Madrilan egin zuten lan (8), Cádiz-en (6), Ciudad Realen (4) edo Sevillan (3).

Estatu mailan erantzukizun larriak hartu zituzten gizonak irten ziren Gasteizko Seminariotik batk bat, gotzain izatera iritsita hainbat, baina baita Eliza espainiarrean antolamendu orokorren buru zirela ere. Adibiderik ez da falta. Apaiz-elkartasuna gidatu zuten batzuek, diozesi arteko elkarteetan, esateko J. M. Virgala Indak (†1958) eta A. Pérez Ormazabal-ek (†1968) “Unión Apostólica del Clero” deituan.

Misio-mundurako ekintzaile instituzional suharrak eman zituen Gasteizek: A. Sagarminagak (†1968) 1919-1921.etan ekin zion lan horri Seminariotik bertatik, eta 1927az geroztik hil zen arte bera izan zen Aita Santuen Misio-Obra guztien buru Espainian³. Gogoratzekoa da Z. Bizkarra (Abadiño, 1880-1963), Mi-

³ Hemen behar bezala laburtu ezin dudan Misio-mugimendu hau “Sagarminaga” biografian dago izen jakinekin emana. Esatekoa da, gainera, hau

sioekin hasi eta gerra-ostean Espainiako Ekintza Katolikoaren Kontseilari Orokorra izan zena (nahiz eta gotzaina izanik hiztegi honetan ez den ageri)⁴. Oso bestelako zereginetan, Jesus Iribarren legutiarra (†2000) datorrit gogora garai erlijioso-politiko zailetan Espainiako Gotzain-Konferentziaren Idazkari izan zena (1977-1982)⁵.

Gerraondoak hainbat euskal apaiz zokoratu (Eskartzaga Solaun, adibide ona da), edo Euskal Herritik urrundu egin zituen⁶. Argentinara joan ziren Tx. Jaka-Kortajarena edo I. Azpiazu eta R. Ertze Garamendi Mexikora (hirurak ere ez dira ageri hiztegian)⁷, M. Intxaurre (Iruñeko Seminarioan euskara-irakasle izana, Armadako kapeilau bikatu zen, Fernando Poo-ko Santa Isabelen)⁸ edo M. Arrizubieta (Cordoban parroko ezagutu genuena, hau ere hiztegian ez dagoena). A. Onaindia Ingalaterra eta Frantzia bizi izan zen (hiztegian dago)⁹. Ez da harritzeko, J. Zaitegi ez agertzea, jesulaguna izanda Ameriketara sekularitu baitzen, nahiz Irazusta politikari eta idazlea, Perun apaiztu baitzen.

dena sustatzen bi jesulagunek izan zuten eragina: Hilarion Gil bastidarrak (†1928) eta Jose Zameza mungiarra (†1957). Biografia: Núñez Uribe, F., 2004, *Ángel Sagarmínaga. El hombre de las misiones*. Madrid: bac.

⁴ Besteren artean, *Cristiñavaren dotrinaco liburu chiquia* (Durango: Elo-sua, 1911), eta *Vasconia españolísima* (Donostia, 1939) liburu bien autorea da Bizkarra.

⁵ Iribarren, J., 1992, *Papeles y memorias. Medio siglo de relaciones Iglesia-Estado en España (1936-1986)*. Madrid: bac.

⁶ Apaizen gain etorri zen gerraondoko zigorraz: Goñi Galarraga, J., 1989, *La guerra civil en el País Vasco. Una guerra entre católicos*. Vitoria: eset. 31-32

⁷ Aulestia, G., 2000, "Ramón Ertze Garamendi" in: Apaolaza et al., 2000, *Hirurogei urte geroago / Setenta años después*. Editorial Saturrarán. II-2, 75-90.

⁸ Historia pertsonal ongi bitxia izan zuen Intxaurrendok, argibide berriak beharko lituzkeena, zinez.

⁹ Goñi Galarraga, J., 2000, "Alberto de Onaindia, sacerdote resistente: magisterio radiofónico desde el exilio" in: Apaolaza et al., 2000, *Hirurogei urte geroago / Setenta años después*. Editorial Saturrarán. II-2, 395-426.

Kargudunen artean

Euskal Herriko Elizan goi-hierarkia osatu zutenek, batzuek, badute hemen biografiarik, bereziki ugariak dira Iruñeko diozesian goi-karguak izan zituztenak, Bikario Jeneralak, Erakunde diozesitar ezberdinen arduradunak, kalonjeak, etab.

Honelako kargudunek izan zitzaizketen garrantzizko betekizun instituzionalak barruntzatzekeo adibide bakarra jasoko dut hemen, Donostiako diozesiko Frantzisko Igartza (Yarza) donostiarrarena (1904-2001): hiruzpalau titulu unibertsitario zituen, Arabako Guardian Erretore, Donostian kapeilau, Propagandista Katolikoen Kontseilari (1934), Ekintza Katolikoko Kontseilari-orde (1942), zentsore, ikastetxeetako erlijio-irakaskuntzaren diozesiko arduradun, kalonje-buru, komunikabideen eliz Idazkari, eliz mugimenduen Bikario Jeneral, edo Donostiako Nazioarteko Solasaldietako Batzordekoa izan zen, etab.

Penintsulan bertan, baina Euskal Herritik kanpo, lekuri izan zuten euskal herritar kargudunen artean gogoratzekoa da zenbait. 1936an hil zutenetakoa izan zen Markos Goñi nafarra, Irurita Lleida eta Bartzelonako gotzain nafarraren laguntzailea. Bikario Jeneral izandakoak ditugu I. Egurtza mendigorriarra (Cádiz-Ceutan), F. Bujanda torralbarra (Calahorran), Bikario Kapitularrak E. Domaika lagrandarra (Cádiz-Ceutan) edo E. Berdun erriberritarra (Burgo de Osman). Nafaria da nola A. Añoveros gotzain nafarrak, Cádiz-en zelarrik, behin eta berriz Euskal Herriko lankideak inguratu zituen.

Oposaketak eginda edo izendapenez kalonjekoak irabazi zituztenak ugariagoak dira, noski, erbeste horretan: K. Iribar getariarra (Jaén-en), P. Anasagasti gasteiztarra (Madrilen), A. Sáez de Ibarra gasteiztarra (Sevillan), B. Flamarique beiretarra (Tarazonan), B. Argaia beratarra (Valentzian), E. Olabarria abandotarra eta J. Igartua oñatiarra (Oviedon), A. Onaindia markinarra (Valladolid-en), K. Huarte lezaundarra (Jerez de la Fronteran). G. Arabaolatza urretxuarra (Zamoran), etab.

Garrantzizko erantzukizunak hartutakoak izan ziren Seminarioetan Errektoretza eman zitzaizkienak: F. J. Almandoz elgorriagarra Cádiz-Ceutan izan zen Errektore, I. Zudaire uxuetarra Ciudad-Realen, J. L. Lazkano iruindarra Madrilen, etab. Horien ondoan egon da, agintari izan gabe itzal oneko aholku-emaile eta teknikari izan denik: adibidez, Madrileko Nuntziaturan Entzule-Aholkulari kanoniko izandako J. M. Etxeberria zegamarra.

Zinez aipatzekoak dira, Irakasle izanik goi-karguetara heldutakoak. Bi aipatuko ditut hemen: Lanberto Etxeberria gasteiztarra (1918-1987), bizialdi osoan Salamancako bi Unibertsitateetan Zuzenbide Kanonikoaren Katedra eman zuena eta T. García Barberena imoztarra (1965-1971) Salamancako Eliz Unibertsitateko Errektore bilakatu zena. Guztien artean ere (bikario jeneral, kalonje, errektore eta abar), gutxi batzuk izan dira hiztegi honek jasotakoak, eta ez da ahaztu behar kasu guztietan ere ni neu ere hautapen are mugatuago baten barruan nabilela aipu hauek egitean.

Aldarte historikoen artean

XIX-XX, mendeek gorabehara sozio-politiko larriak ezagutu zituzten Euskal Herriko Elizan, zenbait gerra zibilekin, borroka ideologiko ezin gaindituekin, erbestealdi eta diktadurekin. XX. mendeko aldarte gaiztoenak ispiilatuta ageri dira hiztegi honetako biografietan, eta zehazkiago azkeneko Gerra Zibil eta beraren gerraondokoa.

II. Errepublikako eta gerratekoak ematean autoreak erakusten duen objetibo/subjetibotasuna, jarrera eta sentierak ezagutzeko ongi datozke biografia batzuk: horietako bi jakin aholkatuko nizkioke hiztegiaren erabiltzaileari, L. Lobo Canónigo madrildarrarena eta J. M. Gallegos Rocafull kordobatarrena, biak Errepublikaren aldekoak gerrakoan eta ondoko esbestealdian. Ez ziren euskal herritarrak baina bai euskal apaizen antzeko drama etiko-politiko bizi izan zute-

nak. Euskal herritar beste biren biografietan osa daiteke autoren historialariaren jarrerarena: J. J. Usabiaga "Iturralde" apaiz historialaria (†1981) eta A. Pérez Ormazabal (†1968), gerratekoan Gasteizko Bikario Jeneral izana (1937) eta gero Donostian ere (1957).

Eliz gizon-emakumeentzat ere une latzak ekarri zituen gerra zibilak, eta apaiz diozesitar eta erlijioso euskal herritarrek, bi alde politiko-militarretan banaturik gertatu ziren, Euskal Herrian bertan eta Espainia osoan. Urte haietan eta geroago protagonista eragilea eta erabilia izan zen Eliza. Hitzegiak bi aldeetako diozesiarrak gogoratu nahi ditu, bereziki bi eremuetan desarrazoi politiko-erlijiosoengatik hildakoak. Hor daude frankistek Euskal Herrian hildako apaizak¹⁰, eta era berean Errepublikaren aldean nonahi hil zituzten euskal apaiz diozesiarrak¹¹.

Ofizialtasunek isilarazi zituzten izenak biltzea komeni da. Azpimarratu beharra dago biografia jakin batzuek duten interesa, hildakoenak (Hernani eta Oiartzunen, edo Quilates itsasontzian) ez ezik bizirik iraun eta rol historiko estimagarria izan zutenenak. M. Muxika gotzaina, Fermin Izurdiaga apaiz kazetari falanjista, A. Onaindia kalonje hizlaria, hemendik kanpo, Sigüenza-n, H. Iaben Iaben sozio-politikari arakil-hiriberritarra (ekinbide eta gorabehera handiak izandako bizitza; Nafarroako prentsan ere idatzi zuen), M. Lekuona idazle historialaria (Calahorrara deserriratu), etab. Geroago, apaizen 1960ko gutun entzutetsuaren oihartzunak Jaime Kerexetaren biografian ikus daitezke.

¹⁰ Hona frankistek hildako diozesiarrak (12): Jose Adarraga, Gerbasio Albisu, Jose Joakin Arin, Jose Ariztimuño, Leonardo Guridi, Jorge Iturrikastillo, Martin Lekuona, Jose Markiegi, Alejandro Mendikute, Zelestino Onaindia, Jose I. Pañagarikano, Jose Sagarna,

¹¹ Goñi Galarraga 1989: 227-234 (Relación de setenta y cuatro sacerdotes y religiosos ejecutados en la Diócesis de Vitoria). Diozesi honetatik kanpo hildakoen zerrenda banan-banan osatu beharko da, hiztegitik eta bestelako iturrietatik.

Kristau mugimendu sozialak bere apaiz sustatzaileak izan zituen Euskal Herrian, eta hiztegian ispilatuta daudenak nafarrak dira batez ere: Erriberan eta Nafarroa osoan eredugarria gertatuko zen Biktoriano Flamarique-ren kooperatibagintza (Erriberritik hasita, 1901); gatazkatsua goa izan zen A. Ioldi San Martin soziologoaren maisutza eta gidaritza soziala, eta sindikalismoan ahalegindu zen Blas Goñi; hirurak ere nafarrak, eta azken biak Iruñeko Seminariorik ere lan egin zutenak. Lurgintzako produkzioarekin loturiko gizartean entseatu nahi izan zuten Leon XIII.enak eman berri zuen etika soziala (*Rerum novarum*, 1891).

Hiru Probintzietan ere gerraurreko apaiz idazle nahiz eragileren bat edo beste gogoratzekoa da: Irunen (1914) eta berehala diozesian Sindikatuen Kontseilari gisa Jose P. Gurrutxaga tolosarra (†1967), Polikarpo Larrañaga soraluzetarra (1883-1956), eta gaztearen eragile eta Gasteizko Diozesian Ekintza Sozialeko Idazkaritza eraman zuena (Bilbo, 1929); gerraondoa bildu eta argitara eman zitzaion bere pentsamendua (1976)¹², J. B. Eguzkitza apaiz lemoarra (1875-1939), *Gizarte-Auzia. Ugazaba eta langille arteko gora-berak* utzi ziguna (1935)¹³, eta hirugarren bat: J. Thalamas-Labandibar irundarra (1906-1981), gerraurrean idazten hasi eta ondoren ere lan gaitza egin zuena¹⁴. Gasteizko Seminarioan ere jardun zuen Thalamas-ek (1932...). Tamalez, bi hauek ez dute lekurik izan eskuartearen dugun hiztegi honetan.

¹² Larrañaga, P., 1976, *Contribución a la Historia Obrera de Euskalerrria*. Donostia: Auñamendi. Ikus Euskomedia-n I. Estornes Zubizarreta-ren berriematea.

¹³ Eguzkitza, J. B., 1990, *Gizarte-Auzia*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte (Klasikoak). A. Urrutiak paraturiko edizioa. Sermolari ona zen, gainera, idazle hau: Eguzkitza Meabe, J. B., 2013, *Neure entzule maiteak. Berbaldi bautuak*. Bilbao: Labayru Ikastegia. (Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia).

¹⁴ *Contribución al estudio etnográfico del País Vasco Continental, Aspectos de la vida profesional vasca* (1934), *La mentalidad popular vasca según Resurrección María de Azkue* (1975).

Ezagunagoa dugu, noski, J. M. Arizmendiarieta markinarra (1915-1976), Euskal Herriko kooperatibagintzari oinarri teorikoak eman ez ezik Arrasaten hasitako eraikuntza kooperatiboan gidari protagonista izan zena (Eskola, 1952; Ulgor, 1955; Caja Laboral, 1959). Adore handiko egintza soziala izan zen hori, langile gazteei lanerako prestakuntza eskaini, balio etiko berrituak eman eta lanaren jardunari gogoeta biziz lagundu zielako. Eta, guztiaren oinarrian, ez zen falta izan pentsamendu filosofikorik ere.

Pentsamendua lantzen

Euskal Herriko apaiz diozesiarren artean ez dugu apenas Filosofiaren historiara pasatu den filosoforik (Zubiri sekulartua gogoan hartzen ez bada, †1983), Katalunian Balmes (†1848) edo Galizian Amor Ruibal (†1930) aipa daitezkeen antzera. Hala ere, hemengo gure Unibertsitateen aurreko bi pentsalari bederen hiztegian daude: Juan Zaragueta oriotarra (Donostia, †1974), Madrilen katedraduna izan zena, eta Jose Ignazio Alkorta zornotzarra Bartzelonan (†1983), biak ere eliz ikasketak Gasteizko Seminarioan egindakoak eta praxiari begiragoko filosofia landu zutenak, hain zuzen Zaraguetak soziologia eta psikologian eta Alkortak Etika eta Soziologiako bere katedratik. Esan dezadan Ferrater-en Filosofia hiztegian topa daitekeela Zaragueta¹⁵.

Azkenik, gomutarazi dezadan, Elizaren barnean eta “modernismo” deituaren olatualdian, buruhasuterik franko izandako E. Román Torío (1869-1930), palentziarra baina Iruñean kalonje eta irakasle zelarik, itzal handiko eskriturista.

Etika eta Soziologia kristaua eman zutenak ez dira eskas izan, pastoraltzan nahiz Irakaskuntzan. Euskal Herriko diozesiarren artean izen ezagunak egon dira Eliz Ikastegietan beza-

¹⁵ Ferrater Mora, J., 2009, *Diccionario de Filosofía*. Barcelona: Ariel, s. v. “Zaragüeta”.

la diozesietako Bikaritzza Sozialen inguruan, sozialtasun kris-tauari ahotsa emanez.

Ez dago hemen lekuz kanpo, aipatutako eraikuntza praktikoaren ondoan, Arizmendiarrietaren ekarpen teorikoa ere gogoratzea¹⁶. Baina irakasleek landu zituzten batik bat soziologia eta politologia. Horietakoa izan zen Gregorio Rodríguez de Yurre arabarra (1913-1990), batez ere irakasle maixua, bere trilogia ezagunean ideologia sozialei aurkezpen kritikoa egin ziena: *El liberalismo*, 1952; *Totalitarismo y egolatría*, 1962; *El marxismo*, 1976. Kasik bi apaiz-belaunaldiren maisua izan zen Rz. de Yurre Gasteizko Seminarioan (1939-1990).

Harrobi hartatik irtendakoen artean XX. mendearen bigarren erdialdian arazo sozialei begira lanean jardundako zenbait izen hona ekartzekoa da. Osotasun asmorik gabe aipa dezadan bat edo beste. K. Abaitua bizkaitar gasteizartuari (†2011) zor diogu *La doctrina de la libertad política en el magisterio de León XIII (1964: urte honek badu hemen bere esanabia)* eta R. Alberdi giputzari (†1982) *Hacia un cristianismo adulto*(1964) eta *Introducción crítica al estudio del marxismo* (1986).

Bi horiek beren lan-egoitza batez ere Gasteiz zuten bitartean, Rafael Beldak (†1999) Bilbotik egin zuen lan, irakasle eta gidari arduradun bezala, bere irakaskuntza marxismo/kristautasunen arteko gatazka-irtenbideak bilatuz berezikiago (Instituto de Pensamiento Cristiano y Diálogo, 1973-1977). Hauen guztien bizi-urrats nagusienak azalduta daude hiztegiari.

Lagunarte horretan, J. M. Setien-i balio bikoitza aitortu behar diogu¹⁷, alde sozio-ekonomikoa ez ezik nazionalari ere be-

¹⁶ Azurmendi, J., 1985, *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarría*. Arrasate.

¹⁷ Tradizio horren emaitza teoriko ofizial eta ez-ofizialak bilduta: Pagola, J. A., 1992, *Una ética para la paz. Los obispos del país Vasco, 1968-1992*. Donostia: Idatz.

giratu diolako, nahiz eta gotzain izateagatik Ortí-ren liburu honetan ez duen tokirik¹⁸.

Aztertzeko daude, hamarkada haietan esandakoak (1950-1980), adibidez inguru gatazkatsu batean gotzaindegietako Batzorde Sozialetatik hedatutako pentsamendua, hau da, etaren ekintzak tartean zirela, marxismo(ar)en mareagora indartsuaren aurrean eta Elizaren pentsamendu soziala berritu nahirik zebiltzala zabaldutakoak. Une haietako euskal historia ideologikoak ez du apenas lekurik hiztegi honetan.

Ikustekoa izango litzateke, adibidez, nola jokatu zuten apaizek *Pacem in Terris* (1963) edo *Populorum Progressio* (1967) Entzikliken mezuak hedatzean, bake-beharraren eta giza eskubideen arteko oreka zuzena nola zaindu zuten. Oro har, pentsa daiteke XX. mendeko bigarren erdialdian Euskal Herriko diozesietan garatu eta hedatutako gogoeta sozio-erlijiosoa ekarpen estimagarria izan zela¹⁹. Biografiatu batzuen leihatilatik zer bait suma daiteke orrialde hauetan, baina deus gutxi.

Dena den, eliz Erakundetik gizarterantz eskainitako irakaskuntza sozial horren ondoan nahitaez hona ekartzekoa da apaiz diozesiarren barne-bizitza indartzeko buruturiko hezkuntza teologikoa ere.

Teologia osatu-berritzen

Institutu Erlijiosoen (Ordena eta Kongregazioek) beti egin izan dute ahalegin handia beren oinarri teologikoak finkatu

¹⁸ Setien, J. M., 1998..., *Obras completas*. I. Dios, política, paz. II. Pacificación y justicia. III. Ética y humanismo. IV. Iglesia y evangelización. V. Iglesia y evangelización. VI. Iglesia y evangelización. VII. Iglesia y evangelización. VIII. Homilías. Donostia: Idatz.

¹⁹ Errazagoa gerta daiteke hori ezagutzea gotzainen idazkietan (Pagola 1992); zailagoa da Batzorde Sozial ofizialen ekarpena bere osoan ezagutzea, eta are zailagoa, oraindik, izen eta guzti protagonista nagusiena biltzea (Seminarioetako irakasleak, parrokiako erretoreak, eliz erakunde eta taldeetakoak, etab.).

eta bakoitzak bere ezaugarri funtsezkoenak ikertu eta ezagutzera ematen. Vatikanoko II.aren ondoren indarberritu baizik ez da egin teologia izpirituala aurkezteko eginahala. Ez da historia zaharreko kontua ezaugarri eta karismaren hori.

Apaizgo kristau eta ministerialaren teologiek historia iraunkorrak izan dituzte²⁰, eta ez da hori batere harritzekoa kristautasunean apaizgoari aitortu zaion egiturazko betekizuna gogoan hartzen bada. Horren oihartzuna izan dira Vatikanoko II.ak hiruzpalau agiritan apaizgoaz esandakoak eta berezikiago apaizgaien hezkuntzari buruz adierazitakoak²¹.

Erljiosoek definituta zuten espiritualitatea, beren zinitz eta arautegiekin, eta Institutu bakoitzeko berariazko ezaugarrien bidez. Bestalde, herritar laikoek beren kristau bideak emanda zituzten bizitza zibilean (familiartea, lan-ogibidea), eta gainera XX. mendeko laikoen teologia bera ere heldutasunera iristen ari zen²².

Erljioso eta laikoen arteko bi mundu horiek ondoan zehar, zein zen apaiz diozesiarrei zegokien espiritualitatea, bizilekua “munduan” bertan zutela bizi baitziren eta, aldi berean, sakratutasunaren bitartekari zirela. Zein eta nolakoa izan be-

²⁰ Ikus, laburki, 1960etako argibide teologikoak: Fransen, P., 1967, s. v. “Sacerdocio”, in *Conceptos fundamentales de la teología*. Madrid: Ediciones Cristiandad. IV, 143-155.

²¹ Ikus: 2003, *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak. Dekretuak. Adierazpenak eta Dokumentu osagarriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 454-485 (apaiz-formazioari buruzko dekretua; XX. mendeko maisugoa bere harian ezagutzeko: 454, 1. oh.), 1196-1204 (aurkibideotan ikus daiteke Kontzilio hark apaizgoaren teologia eta espiritualtasunaz dioena).

²² *Ibidem*, 1400-1402 (*Lumen Gentium*-eko 31-32. pasarteetatik hasita, aurkibide horretatik bila daiteke Kontzilioak laikoei buruz esandakoa). Ikuspegi historiko-teologiko orokorra: Congar, Y., 1967, s. v. “Seglar”, in: *Conceptos fundamentales de la teología*. Madrid: Ediciones Cristiandad. IV, 224-246.

har zuen apaiz diozesiarren espiritualitateak, gotzainen mendean eta herriarekin lanean?²³

Mendeak zehar diozesi eta Seminarioetan apaizgo sekularren espiritualtasuna goraipatua eta,aldi berean, eztabaidatua izan da²⁴, eta Gasteizko Seminarioak ardura zuzena izan du XX. mendean horretaz egindako gogoeta teologiko eta berorren praxi hezitzailearekin²⁵.

Gure inguruetan, Pariseko St. Sulpice-ko tradizioaren arrastoan, Ars-ko Erretorea²⁶ edo San Joan Avilakoa²⁷ eredutzat hartuta, hutsune hori bete nahi izan zen, apaiz diozesiarrei identitate teologiko landu eguneratua eskaintzeko. Gasteizko Seminarioa benetan berritze teologiko horren zinezko mintegia

²³ Apaiztasun horren definizioaz: López Martínez, N., 2005, s. v. "Presbiterado" eta "*Presbyterorum Ordinis* y Vaticano II", in: Prof. Teol. Burgos, 2005, *Diccionario del sacerdocio*. Madrid: bac. 619-639. Jiménez Urresti, T. I., 1968, *Presbiterado y Vaticano II. Teología conciliar del presbiterado*. Madrid: ppc.

²⁴ Gamarra, S., 2005, s. v. "Espiritualidad", in: Fac. Teol. de Burgos 2005, 252-261.

²⁵ Gamarra-Mayor, S., 1981, *Origen y contexto del movimieno sacerdotal de Vitoria*. Vitoria: eset. (Mugimenduaren izaeraz eta abagune historikoaz, 7-43). Ibáñez Arana, A., 2005, *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Ediciones eset. I, 285-316 (gerraurreko espiritualitateaz; II, 123-132 (gerraondokoaz).)

²⁶ Arsko Erretorearen biografia klasikoa: Trochu, F., 1925, *Le Curé d'Ars. Saint Jean-Marie-Baptiste Vianney (1786-1859)*. Lyon / Paris: Librairie Catholique Emmanuel Vitte. 22 argitaralditaraino heldu zen obra hau (2004) eta argitaratzaileak dioenez, "Le livre eut un immense succès et rapidement fit le tour du monde". Euskal Herrian erlijiosoen artean ere ezaguna izan zen Vianney, biografia horretaz baliaturik. Aita Villasantek eman zuen euskaraz (1961) Erretorearen idazlan hautatuen edizioa: Vianney, J. M., 1961, *Goi-argi. Ars'ko erretore santuaren erakusaldiak*. Arantzazu: efa. Euskal biografo batek emana: Iribarren, J., 2009, *San Juan María Vianney. El cura de Ars*. Madrid: bac. Joan XXIII.ak gogoan izan zuen mendeurrenean Vianney-ren santutasun-eredua (*Nostri sacerdotii primitias*, 1959).

²⁷ bac-eko bildumetan ikus daitezke San Joan Avilakoaren idazlan guztiak eta argibide biografikoak.

bilakatu zen, laster Penintsulako beste Seminarioetarako bozgorailua bere *Surge* aldizkarian zuela (Gasteiz, 1940: *revista sacerdotal: espiritualidad y apostolado*)²⁸.

Gasteiz eta Iruñeko ahalegin horretako protagonista batzuk bederen aipa daitezke hemen: Pedro Legaria* (Tutera, 1878-1956), Nestor Zubeldia (Lizarra, 1878-1963), Jose Pio Gurrutxaga* (Tolosa, 1881-1967, Antonio Amundarain* (Elduain, 1885-1954), Juan Migel Razkin* (Iruñea, 1902-1986), Rufino Aldabalde (Zarautz/Aia, 1904-1945), Ramon Etxeberria (Amezketta, 1904-1997), Joakin Goikoetxeaundia (Lizartza, 1905-1994)²⁹, Kintin Huarte* (Atarrabia, 1906-1989), Kornelio Urtasun* (Aurizperri, 1917-1999). Jada batzuek badituzte beren biografia idatziak, eta horiekin eta aipatu gabe uzten ditudan antzeko apaizekin gure diozesien iraganeko alde estimagarri hau eza gut daiteke.

Zegokien espiritualtasunaren ezagutzaile onak zirelarik, batez ere eragile izan ziren, lehenik apaizei bizibide praktiko zaindua eman nahi izan zietenak, berehala, diozesietako apaizak elkartasunera biltzen saiatu zirenak (apaizen elkarteak), ondoren herritarrei ere laikotasunaren espiritualtasun berritua eskaini nahi zietenak (gogoan har garaiko Ekintza Katolikoa, 1923).

Aurreko pasartean izartxoarekin (*) eman ditugunak fundatzaile izan ziren, beren pastorerako elkarte finkoak sortu zituztenak alegia (Legaria: *Esclavas de Cristo Rey*; Gurrutxaga: *Auxiliares Parroquiales de Cristo Sacerdote*; Amundarain: *Alianza en Jesús por María*; Razkin: *Soltería Seglar, Compañía de la Virgen*, Gallastegi: *Misioneras Parroquiales*, etab.). Orokorrean, kristau herritarrengana iristeko, predikari onak izan ziren batzuk (Goikoetxeaundia, Amundarain, S. Begiris-

²⁸ Aldizkari honi buruzko ohar historikoa: Ibáñez Arana 2005: II, 125-128.

²⁹ Núñez Uribe, F., 2001, *Joquín Goicoecheaundía. Siempre sacerdote*. Madrid: bac.

tain) eta diozesietan gogartetxeak eratu zituzten (Burlata, Donostia, Begoña, etab.).

Hortaz, apaizén eta laikoen santutasun-teologiak Elizan eta gizartean zabaltzeko lanabes berriak izan zituzten diozesiek, ekintzaile bizkor gertatu ziren horien bidez. Santutasun-sona izandako apaizak ere badaude biografien artean, R. Z. Olaso Aranguren iruindarra (†1930), A. Amundarain elduaindarra (†1954), A. Senosiain Benito irundarra (†1980), etab.

Guztiaren ondorioz, klero diozesiarra euskal gizartearen pentsamendu- eta bizi-gidari azkarra bilakatu zen, inoiz baino indartsuagoa, gerraondo ofizialaz ere baliatu zena (1940-1965) eta, gerratetik bertatik hasita, une jakinetan jarrera etiko-kritikoak izango zituena, goi-hierarkiak bestelakorik nahiago zuenean ere.

Beste zeregin ugaritan

Bistan da apaiz jendearen zeregin nagusi eta orokorra **pastoraltza** izan dela, hau da, eliz bizitza erlijiosoak premiazkoak zituen zerbitzuak eskaintzea: Sakramentuak, igande eta jaie-tako elizkizunak, katekesia, predikua, eliz elkarteen gidaritza, herri agintari eta herritarrekin gizarteko bizitza erlijiotasunez janztea. Baina horretan guztian XX. mendean erro-errotiko aldakuntza ezagutu da: Kristandade-gizarte batetik kasik erabat sekularitutakora pasatu da Euskal Herria.

Pastoraltza parroketan egin izan da batik bat, eta tokian tokiko Errektore edo Bikarioak izan dira lekuan lekuko ardura izan dutenak. Ez da, beraz, Erretore estimatu eta baliozkorik eskas. Herritarren oroimenean geratutakoak dira, adibidez, Elizondoko Maurizio Berekoetxea bertako semea (†1933), Maringo Joakin Iturrikastillo elgetarra (†1936), Iruñeko Salvatoreko Eusebio Balduz azkoiendarra (†1953), Bilboko Aurelio Altzola arabarra (†1955) eta Alejandro Etxebarria (†1959), Uhar-

teko Leandro Azkarate ariatarra (†1972), Iruñeko San Nikolas eta San Lorentzoko Erretore Pedro Alfaro iruindarra (†1984) eta Justiniano Arratibel arruazuarra, Bilboko San Antongo Klaudio Gallastegi elorriotarra (†1988).

Herriko erretoreak bertako herritarrena ez ezik orokorrean diozesiaren eta apaizgoaren etorkizunaz arduratuak izan ohi ziren, batzuetan eraginkortasun handiarekin, gainera. Pastortaltzaren barruan, sinestunak eliz Erakundera erakartzen ezohiko kasua izan zen, e. b., Abartzuzan On Bruno Lezaun (†1961), 424 neska bideratu baitzituen mojarako eta ehunen bat mutil apaizetarako.

Frontean edo presoekin kapeilau-lanak eraman behar izan zituzten batzuen biografiak heldu dira hiztegiako orrialdeetara: Iruñe ondoko San Kristobal gotorleku-presondegian, adibidez, J. M. Pascual (†1998), Olaetxea gotzainak izendatuta (1938), edo J. Etxeandia Bilboko “El Carmelo” presondegian.

Pastortaltzarako tresna izan du Elizak kultura ere (literatura, arte plastikoak, musika) eta Euskal Herriko apaizak ez dira baliabide horien erabileran atzera geratu. Euskara idatziaren historia apaizez beteta egon da, eta euskal herri-kantategian sorreta erlijiosoak bere lekua izan du, dakigunez. XX. mendeko pastortaltzan ez dira falta izan parrokien inguruan sortutako koruak, organoa, abesbatzak eta gazteentzako musika-eskola gutxi asko formalak.

XX. mendeko bi une historiko gomutarazi behar dira alor honetan: Pio X. arekin etorri zen eliz musikaren erreforma (*De musica sacra*, 1903), eta Vatikanoko II. arearen arrastoan burututako berrikuntza (ik. *Sacrosanctum Concilium konstituzioan barren hainbat arau*, 1963)³⁰. Bi data horien bitartean Gasteizen

³⁰ *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, 2003: 1381 (bilaketarako aurkibidea, s. v. “Kantu erlijioso”). XX. mendeko musika erlijiosoari buruzko Zuzenbidea: 1917ko Kode Kanonikoan 1264. kanona eta beronen iruzkin historikoak: Varii, 2009, *Código de Derecho Canónico y legislación complementaria*.

ospaturiko Musika Sakratuaren Batzarra dago (1928). Zeregin horretan apaizak, erlijiosoak eta laikoak besoz beso ibili dira, abestu edo tresnak jotzen ez ezik eliz eresiak eta kantu herri-tarrak biltzen eta Kontziliotik hona doinu berriak sortu eta herri-tarren artean hedatzen. Vatikanoko II.aren ondoko lana nabarmen izan da berritzailea³¹.

Baina apaiz sekularren musika-lana ez da Eliza barrura mugatu. Adibide ona da gizarte zibilerako jardunean R. M. Azkue (1865-1951), herri-musikaren bilketan jardundakoa (1915-1922. etako) eta aldi berean musikagilea bere opera eta beste-lakoekin (gogorarazi izan denez, oso maitea zuen Azkuek bere musika-sorkuntza). Parrokien inguruetan sortu ziren abesbatzak eta hainbat apaizek herrietan eskainitako musika-hezkuntza, maitatuak izan dira gure artean.

Gure eliza ez gutxitan organoak egon dira, eta organo-joleak, batzuetan beren ogibidea ofizio horretan zutenak³². Egia esan, hiztegi honetan ezer gutxi islatu da gure musikaren historia eliztarraz edo apaiz euskal herritarrek erbestean eginez, baina aipatutako musikari eta musikagile batzuren izenak bederen emango ditut.

Bertan izan ditugun organo-jole eta zuzendariak datoz gogora: hiztegian daude gutxi batzuk, J. Valdés Goikoetxea gasteiztarra Bilbon (†1958), L. Hernández Askuntze iruindarra Iruñean (†1965), D. Sotés Orradre belaskoaindarra Gasteizen (†1976), Zesareo Gabarain musikagile hernaniarra dozenaka disko erlijioso argitara emandakoa (†1991), etab.

taria. Madrid: bac. 492-494.

³¹ XX. mendeko euskal musika erlijioso herritarren historiaz: <http://etorkultura.com/capitulos/13-EE-T10c1.pdf>.

³² Apaiz diozesiarren musika-ekarpena ezagutzeko ondoko liburu honi eman beharko litzaioke begiratu bat (Arana Martija, J. A., 1987², *Música vasca*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína) eta Erretereriako Eresbilera joan-etorri bat merezi du gaiak..

Neure aldetik ekarriko nituzke hona behin eta berriz kale-ratutako eliz abestien bilduma ezberdinak; berezikiago aipatuko ditut eginkizun horretan ibilitako bi izen: Bitor Garitao-naindia durangarra (†1929), bere *Eliz-abestiak* liburuarekin, eta Bizente Aranburu zizurkildarra, hain zuzen 1950ean kale-ratu eta parrokia guztietara helarazi zuen eliz kantategiaren argitalpenagatik (*Eliz abesti sorta*, 1950).

Arrazoi instituzionalagoengatik, aintzakotzat hartzekoak dira diozesietako Musika-Batzordeen lanak, Liturgiaren musika-berrikuntzan herriz herri egindako ahaleginak, sarritan apaiz eta sekularren arteko elkarlanean, gainera.

Azkenik, ohikoa izan da apaiz musikari euskal herritarrek lantegia erbesteko katedraletan bilatzea: Bizente Goikoetxea aramaioarra (Valladolid, †1916), Gaspar Arabaolatza urretxu-arra (Zamora, †1959), Norberto Almandoz astigartarra (Sevilla, †1970), hemen bertan geurean jardundakoren bat ahaztu ga-be: Luis Beltzunegi (Burgos, †1997).

Iragan kontuekin gabiltzanontzat ikustekoa da hiztegiak nola gogoratu dituen Euskal Herriko apaiz **historialariak**. XX. mendera ozta-ozta heldu zen E. Labairu bizkaitarra (†1904) ez dago hemen, bai ordea M. Arigita nafarra (1864-1914). Eta E. Urroz tolosarrari (†1937), Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren Batza-rean (1918), euskal Elizaren historia aurkeztu zuenari berea eman zaio, eta arrazoi hobeagoekin; J. Goñi Gaztanbide nafar aritzaletarrari (1914-2002). A. E. Mañarikua hemen dago (1911-1988), baina ez dira ageri S. Insausti (†1978), L. Murugarren (†1999) edo aritalpenaren ondoren hildako J. I. Telletxea (1928-2008). Azkenik, badago Euskal Herriaz jardundako historialari kanpotarren bat edo beste: esaterako, A. Durán Gudiol katala-na (1918-1994), Huescan kalonje eta XI. mendeko Leire-ko erromanikoa eta Nafarroako monasterioak aztertu zizkiguna.

Aurkezten ari garen liburu honetan ez dezakegu itxaron euskalari, euskaltzale eta euskal **idazleen** zerrenda osaturik,

ezta leinargienak ditugun guztiena ere. Jaso dira Tx. Agirre (†1920), R. M. Azkue (†1951), J. Ariztimuño “Aitzol” (†1936), M. Lekuona (†1987) eta J. M. Barandiaran (†1991), eta estima-tzekoa da irakasle edo itzultzaile izandakoren baten presen-tzia: Luis Goñi Urrutia iruindarra (†1933), Gabirel Manterola zeanuriztarra (†1977) eta Mikel Zarate lezamarra (†1979) ain-tzakotzat hartuta daude.

Nafarroako diozesiaren euskalduntze idatzi ofizialak ekarri ditu orrialde hauetara izen jakin batzuk: L. Goñi Urrutia (go-tzain-gutunen itzultzailea, 1924; †1933), Blas Fagoaga Ariztia (irakaslea eta idazlea, 1925; †1966), Migel Intxaurre (Se-minarioko euskara irakaslea, 1924; †1979); dotrinaren itzulpe-nean parte hartu zuten bi (1935): Fermin Goikoetxea Jausaras (†1943) eta S. Napal Baratze (†1968). Eliz hizkuntzentzat Va-tikano II.ak garai berriak sortu zituenean, Pedro M. Zabaltza Bikario Jeneralak (†1990) gidatu zuen Iruñeko diozesian eus-kararekiko arauak betearaztea, eta Arraiozko Migel Plaza Aroztegi iruindarrak (†1985) egin omen zuen Meza-liburu ofi-zialaren euskal itzulpena. Nafarroako eta Euskal Herri osoko aldakuntza liturgiko horietako historia eta biografiak idazteko ditugu. Esandakoen ondoan aipatuta geratzen da Martzelino Garde (†1990) *Diario de Navarra*-ko apaiz kazetariaren euskal lana. Argitalpen honen ondoko kontuak dira hemen ez dau-den J. M. Satrustegi edo J. M. Lekuona hil berrien biografiak.

Badago gaztelaniaz luma ederra izan zuen J. M. Cabodevi-lla tafallarra (†2003), estimu handiz aurkeztua; baina, bestalde, ez da ageri Patxi Larraintzar (1934-1991), eliz idazle sozial kri-tikoa.

Zenbait iradokizun

Zertarako balio izan du honainoko berriemate honek? Argi-talpen baten aurkezpen-kontua bakarrik ote da ala zerbait ge-hiagorako ere balio dezakeen zerbait? Beharbada, iradokizun bat edo beste eskain dezake honek guztiak.

Apaiz sekularrei buruz ezer gutxi jakiten da, normalean, eta liburu honetan milaka albiste daude esku-eskuera. Esan dugu 3.003 biografia direla aurkeztutakoak, eta horietako 426 euskal hegaldetarrak dira, hau da, XX. mende horretan Hegoaldean izandako mila batzuen arteko 426 hautatu (gotzainak zenbatu gabe, eta erlijiosoak jaso barik).

Izenak, sorterriak eta bizialdiaren urteak ematen dira, eta, bistan da, bakoitzaren hautua ulertzeko izan duen soslai pertsonal eta soziala. Posible da, hortaz, biografiatuen kronologia bateratua eratzea, edota pertsonaia aipagarriok eskaintzen duten geografia marraztea.

Era berean, bakoitzaren eta guztion munta soziala ezagut daiteke, hiztegiak nahitaez dituen neurrien barruan, horren lagungarri izan daitezke hiztegiak aurkeztuei ematen dizkien argibide bibliografikoak. Apaiz sekularren soziologia historiko euskal herritarra lantzen hasteko lehen pauso ona da beronek hasitakoa.

Hiztegi hau ez da idatzi Euskal Hegoaldeko apaiz diozesitar guztien katalogoaren gain, baizik eta eskuratutako bibliografiak iradoki dituen hautu eta lehenespenen arabera egin du lan autoreak. Historialari arduraturen batek ekin beharko dio historia orokorrago hori moldatzeari (berriz ere Iparraldea ahaztu gabe), ondoren hautagaien zerrenda segurtatuago bat ere egiteko. Hau esatean, jesulagun, karmeldar, kaputxino edo frantziskotarren lanak ditut gogoan³³.

³³ Inoiz aldizkari honetan aurkeztu ditudan aita I. Sans-en lanak jesulagunentzat, eta karmeldarrentzat (Unzueta, A.; Izpura, L. M., 2001, *Catálogo de los religiosos carmelitas descalzos de la Provincia de San Joaquín de Navarra (1868-2000)*. Erroma: Teresianum. (Bertan zenbatutako fraideak 1.447). Kaputxinoek sakabanatuagoa dute informazioa, hiru argitalpen ezberdinetan, eta ez zehaztasun berarekin (1900-1950, 1950-1975, 1975-2000). Frantziskotarrek XX. mendean ez dute lan buruturik, baina bai XIX. mendean *nomenclator*-a eta biografiak batera emanda: Solaguren, C., *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico*. Arantzazu: efa. Nondik norako metodologia biografikoa beharko

Esan dut hiztegia Espainiatik idatzita dagoela, beraz ez Euskal Herriko berariazko begira-puntuetatik, baina, ikusi dugunaren arabera, esan daiteke gure zenbait berezitasun historiko aintzakotzat hartu dituela autoreak (Gasteizko Seminarioarenak edo gerrakoak batik bat).

Orrialde hauetatik hona ekarri ditudan albisteez ez dute agortzen apaiz euskal herritarrez liburuan esandako guztia (laginen bat edo beste bildu dut nik hemen, ez gehiago); baina dagoen dena ere ez da aski gure apaiz euskal herritarren historia biografiko-soziala ongi onduta osorik izateko.

Horretara iristeko egoki etorriko litzateke biografiak eliz erakunde eta talde berezituen historiarekin batera ematea (diozesi edo parrokiatako historiak, gotzaindegietako lan Batzordeak, Ekintza Katolikoa, Kofradiak, Biltzarrak, Erromesaldiak, Pakoazkoa, Ezkontza, Jaiak, Laikoak, eta abar luzea). Biografiak ere beste hautapen berritua beharko lukete, gotzainak ere barnean ditugula, esate baterako.

Teologia, Espiritualitatea, Santutasuna ezin dira begiratu gabe utzi, edozein egitasmu erlijiosoren bihotz-bihotzean dauden balioak direlako (eta ahal bada bakarrik gainegiturazko estalgarri ideologikotzat hartu gabe).

Oro har, alor horretan nabaria da eliz historiografiak apaiz diozesiarrei eskaini dien arreta eskasagoa. Zalantzarik gabe, erlijiosoek beren arteko kideen oroimena kontuzago zaindu izan dute, eta begiratu besterik ez dago, adibidez, fraideen kroniketan monje edo fraide nabarmenduei eskaini ohi zitzaizkien berriemateak. Oro har, apaiz diozesiarrentzat ez da egon tamaina bereko interesik, eta horren lekuko da kanonizazioen historia bera ere³⁴.

genukeen aditzera emateko ez da eredu txarra azken hau.

³⁴ Ik. Repetto, J. L., 2000, *Santoral del clero secular; Del siglo XIII al siglo XX*. Madrid: bac. Azpimarratzekoa da apaizeria sekularreko Santu, Beato eta Beneragarriak asko eta asko "martiriak" direla, heriotzak "santutu" zituenak:

XX. mendeko euskal apaizen diasporak mereziko luke arreta berezia, eta kasu honetan ondotxo ere hiztegiko mugak gainditu egin beharko lituzke horrek, nahiz eta ikerkuntzan eragozpen nabaria izango den diaspora horren barreiaketa geografikoa.

Historia biografiko hauek norbanako historikoaren garrantzia azpimarratzen dute, egitura sozio-instituzionalen barnean gizabanakoak duen indarra eta eragina gogoan hartuta, eta Goñi Gaztanbide (Nafarroa), Moreau eta Goiti (Iparraldea) edo Ripa-ren (Calahorra) diozesiei buruzko lanei gorputz-haragi berria ematen diete.

Hiztegia lan berrietarako deia dela esango nuke.

Joseba Intxausti

Donostia, 2013-09-01

Ingalaterrako Isabel I.aren garaikoak, Frantziako Iraultzakoak, nazien menpeko Poloniakoak, Mexikoko jazarpen-urteetakoak, Espainiako Gerra Zibilekoak. Baina apaiz sekularren egunerokotasun apala gutxiago begiratu da.